

Asisko gutuna

2017ko Ekaina. 4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin, anaitasunez bizi

104. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Gure bigarren printzipioan apaltasuna azpimarratzen dugu. Izan ere gure egia sakonenak apaltasuna dakarkigu. Nork ez du harriduraz edo txundiduraz esan: “Ni nire emazteari (edo senarrari) ez natzaio oinetara ere iristen”? Eta ez gure buruak gutxies-ten ditugulako, baizik bestearen misterio sakona barrundatzera iritsi garelako. Horre-kek soilik eramango gaitu egiazko senidetasunera.

Gogoetarako gaia

Ni ez naiz nire anaia edo arreba baino gehiago

Halako senidetasun-maila batean, senide gisa bizitzean, senide izatean, motor eragile izan daitezke borondate ona, edo anaiarteak, elkartekak, parrokiak... dituen idealak. Orduan honako baloreak dira gure sostengu: berdintasuna, elkarrekikotasuna, onginahia. Hasiera batean atsegingarri gertatzen da apustuak partekatzea, garen eta daukagun onena horretan jokatzen dugulako. Sentitzen dugu eman baino gehiago hartu egiten dugula. Besteak, ni baino gehiago dira.

Hala ere, etortzen dira borondate ona nahikoa ez den momentuak. Agertuz joaten dira bakoi-tzaren alde ez hain distiratsuak, harreman-arazoak hainbat arrazoi direla-eta: jitea, ideia-aurkakotasunak, nekealdiak... Orduan honelako sentazioa nagusitzen zaigu: ez dagoela proportziorik nik niretik ematen dudan askoren eta ordainetan hartzen dudan gutxiaren artean. Besteak, ni naizen baino gutxiago dira.

Iritsi gaitzke beste maila batera senidetasunean. Hau ez da taldekideok mugitzen gaituzten

borondate onaren emaitza, ez eta ideia eta helburuen adostasunarena ere. Norberaren eta elkartearen bide-egitearen arian konturatuz joaten gara, senidetasunak baduela misterio bat eta honek gaintitu egiten duela kideen kopurua, beraien bertuteena eta mugatasunena. Badago kontrolatzen ez dugun maila oinarrizkoago bat, eta bertan Jainkoak misterioski elkarrarazten ditu senidetasuna, parrokia, elkartea. Jainkoak, bere maitasun-asmoan, elkartuta eta bakean nahi gaitu. Senidetasuna eginkizun izango dugu beti, ez da beti harmoniatsua eta gatazkarik gabea izango; baina bertan egiten dugu norberaren eta elkartearen ibilbidea, baldin eta zabalduak mantentzen bagara sostengu ematen digun Jainkoaren arnasa hartzera. Orduan sentazioa da, inor ez dela inor baino gehiago, zeren eta Jainkoagan baitugu oinarria eta maitasuna.

Zerk mantentzen gaitu ur gainean? Nork ematen digu senitarterako, elkarte eta parrokiarako, familiarako... beharrezko dugun plus hori?

Ebanjelioko pasartea: Jn 17,21-26

«Egizu guztiak bat izan daitezela. Aita, zu nirekin eta ni zurekin biok bat garen bezala, hauek ere bat izan daitezela gurekin. Horrela, munduak sinetsiko du zuk bidali nauzula... Ni hauekin bat eta zu nirekin bat. Horrela, guztiz bat izango dira, eta munduak ezagutu ahal izango du zuk bidali nauzula eta ni neu maitatu nauzun bezala maitatu dituzula berauek ere. Aita, zuk eman dizkidazunak ni nagoen lekuan nirekin egotea nahi dut, nire aintza, mundua sortu aurretik maite izan nauzulako eman didazun aintza, ikus dezaten... Zu nor zaren jakinarazi diet, eta aurrerantzean ere jakinaraziko, zuk didazun maitasuna hauengan izan dadin, eta ni neu ere hauengan izan nadin».

Frantziskotar espiritualtasuna

“Jainkoaren zerbitzaria ez du ezerk atsekabetu behar, bekatuak izan ezik. Baina norbaitek bekatu egitean, edozein dela ere haren bekatua, Jainkoaren zerbitzaria horregatik, karitaterik izan gabe, asaldatzen eta haserretzen bada, errua pilatzen du bere gain. Ezergatik ere haserretzen eta larritzen ez den Jainkoaren zerbitzaria, berriz, bererik gabe bizi da egiaz. Eta zorionekoa beretzat ezer gordetzen ez duena, baizik eta *Zesarrena Zesarri eta Jainkoarena Jainkoari* ematen diona.

Hona zertan ezagut daitekeen Jainkoaren zerbitzariak Jaunaren espiritua duela: Jaunak bere bitartez zerbitu onik egiten duenean, bere izaera grinatsua -beti on guztiaren kontrakoa dena- horregatik goratzen ez bada, baizik eta bere burua are kaskarragotzat hartzen badu eta inor baino txikiagotzat jotzen”.

Beharrezkoa dugu *Jaunaren Espirituak* eraginak izatea, zeren eta geure izaera grinatsua, geure “egoa”, bada bultzatzen gaituena, berehalaxe haserretzen eta asaldatzen gara, geure burua goratzea eta handien eta hoberentzat jotzea bilatzen dugu, hurbiltasuna eta elkartasuna dugu hausten, *karitaterik izan gabe*. Geure gogoa *Jaunaren Espirituak* arnasten uzten dugunean, orduan *ordain dezakegu bueltan*, hau da, goza eta esker dezakegu, norgehiagokeriarik gabe, Hark gurekin eta gure artean egiten duen on guztia.

Otoitza

Batasunaren oinarri eta senidetasunaren eraikitzaile zaren Jesu Kristo, bidaliezaguz goizero zure espiritu-zurrusta bat, eraits itzazu banantzen gaituzten hesiak, egoismoak, harrokeriak eta handiusteak altxatuak.

Urrun itzazu gure bizitzetatik liskarra ereiten duten inbidiak elkarrekin lan egitea oztopatzen duten protagonismoak...

Sorraraz itzazu gure senide-harremanetan korrante sentibera eta beroak, elkar barka eta konpreni dezagun, elkar akuilatu eta ospa dezagun, atalek Gorputz berean, familia berean, bezala.

Ken gure bidetik norgehiagoka eta ezinikusiak, askatu gure blokeoak, horrela pertsona ireki eta leialak, zintzo eta egiaziak gaitezen. Haz bekigu konfiantza zuhaitz hostotsu gisa, beraren itzalean zoriontsu senti gaitezen.

Horrela munduaren aurrean zera argudiatuko dugu sentigarriki eta profetikoki: Zu, Jesus, bizirik zaudela, eta Elkartasun Misterio den zure Eliza bere edertasun osoz agertzen dela gure artean. Amen.

Gutuneko azken hitzak

“Harrokeriak bihurtu zituen aingeruak deabru. Apaltasunak bihurtzen ditu gizakiak aingeru.” (San Agustin)

2017ko ekaineko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen daukate ekaineko erreferentzia guztiak:

1 Jn 17,20-26	7 Mk 12,18-27	13 Mt 5, 13-16	19 Mt 5,38-42	25 Mt 10, 26-33
2 Jn 21,15-19	8 Lk 22, 14-20	14 Mt 5,17-19	20 Mt 5, 43-48	26 Mt 7,1-5
3 Jn 21, 20-25	9 Mk 12, 35-32	15 Mt 5,20-26	21 Mt 6,1-6.16-18	27 Mt 7, 6.12-14
4 Jn 20,19-23	10 Mk 12, 38-44	16 Mt 5, 27-32	22 Mt 6, 7-15	28 Mt 7,15-20
5.Mk 12,1-12	11 Jn 3,16-18	17 Mt 5, 33-37	23 Mt 11, 25-30	29 Mt 7,21-29
6 Mk 12,13-17	12 Mt 5,1-12	18 Jn 6, 51-58	24 Lk 1,57-66.80	30 Mt 8, 1-4

Ekainean elkarrekin ospatuko dugun otoitza 29ean izando da 19:30tan

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org




Asis Sarea

646 21 48 96